

# KUKURRUKU

## Elkarrizketa erako kanta-jolasa



### Nola jolastu?

Ume txikiekin (2-3 urte), altzoan hartu eta umea gora eta behera erabili, kantatu bitartean.

Handiagoekin (5 urtetik aurrera), umeak bi taldetan banatu eta elkarrizketa egin dezakete, parez pare jarrita. Elkarrizketa hori antzeztu egingo dute, keinuak eginez, eta gora eta behera mugitu daitezke (orain zutik, orain makurtuta; hizketan daudenean, zutik).

- Kukurruku!
- Zer duzu?
- Buruan min!
- Zeinek egin?
- Azeriak
- Azeria non?
- Errotapian
- Zertan?
- Garia biltzen
- Garia zertarako?
- Oiloari emateko
- Oiloa zertarako?
- Arrautzak jartzeko
- Arrautzak zertarako?
- Frijiduta jateko!

